elkarkidetza®
pentsioak



# 2017KO KUDEAKETA TXOSTENA

# INFORME DE GESTIÓN 2017

# Aurkezpen gutuna
# Carta de presentación

Oro har, esan dezakegu 2017. urtea lasaia izan zela erakundearen kudeaketari dagokionean.

Inbertsioen arloan, 2017. urtea orokorrean ona izan da finantza-merkatuetan, aurrerapausoak egin baitira aktibo mota ia guztietan. Horren arrazoiak dira, besteak beste, munduko ekonomia modu egonkorrean eta sinkronizatuan eta inflazio-tasa baxuekin hazi dela, enpresek emaitza onak izan dituztela eta inflazio-tasak neurrizkoak eta diru-politikak malguak izan direla. Emaitzen artean, nabarmentzekoa da Elkarkidetzak **% 5,13-ko** errentagarritasuna lortu duela, eta, hala, enplegu-planek batez beste lortutakoa (% 2,77) gainditu du argi eta garbi.

Gure inbertsioak tentuz kudeatu ditugun arren, ez dugu gure konpromiso soziala ahaztu. Eremu horren barruan, euskal enpresetan inbertitzearen aldeko apustua mantentzen dugu, lanpostuen mantentzea eta sorrera bultzatuz herrialdearen garapen endogenoari laguntzeko ildoari jarraikiz.

Bazkideen taldean, kotizatzen dutenen eta pentsiodunen kopuruak igo dira, bazkide aktiboek **bederatzitik** gorako puntuazioa eman digute lehenbizikoz Elkarkidetza gomendatuko luketen galdetzean, ekarpenek igotzen jarraitzen dute eta krisiaren osteko baliorik altuenera iritsi dira. Halaber, pentsioen zenbatekoak (urteko erretiro-pentsioa 3.749 eurokoa da batez beste) eta pentsiodunen kopuruak igotzen jarraitzen dute, taldearen joeraren ondorioz eta **31 urte** igaro direlako Elkarkidetza sortu zenetik.

Halaber, gure erakundearen Gobernamendu Onerako sistema ezartzen bukatu dugu. Horren barruan, Gobernu Batzordearen eskumena da gobernu korporatiboa modu iraunkorrean diseinatzea, ebaluatzea eta berrikustea. Beste helburu batzuen artean, erakundearen kaudimena iraunkortasunez maximizatzea lortu nahi dugu, gure bazkideen, aktiboen eta pentsiodunen interesak kontuan izanik. Era berean, Gobernu Batzordeko eta kudeaketa-taldeko jardunbide onak, profesionaltasuna eta irizpide-burujabetasuna ere bermatu nahi ditugu, baita barne- eta kanpoaraudiak betetzen direla ziurtatu ere.

El año 2017 podemos considerarlo, con carácter general, un año tranquilo en lo relativo a la gestión de la Entidad.

En el ámbito de las inversiones 2017 ha resultado un año en general muy plácido en los mercados financieros con avances en casi todas las clases de activos, debido entre otros factores al crecimiento económico mundial estable y sincronizado con bajas tasas de inflación, buenos resultados de las empresas y tasas de inflación moderadas y políticas monetarias laxas. El resultado más visible es que Elkarkidetza ha obtenido una rentabilidad del **5,13%** y ha batido claramente a la obtenida de media por los planes de empleo que ha sido del 2,77%.

La gestión prudente de nuestras inversiones no nos hace olvidar nuestro compromiso social. Dentro de esta esfera seguimos apostando por realizar inversiones en empresas vascas en la línea de contribuir al desarrollo endógeno del país, potenciando singularmente el mantenimiento y creación de puestos de trabajo.

Respecto al colectivo de personas asociadas se ha incrementado tanto los cotizantes como los pensionistas; los socios activos nos han valorado por primera vez por encima de **nueve** en la pregunta de si recomendarían Elkarkidetza; las aportaciones siguen creciendo y vuelven a alcanzar los niveles más altos desde la crisis. Tanto el importe de las pensiones, la pensión anual media por jubilación es de 3.749 euros, como el número de pensionistas siguen creciendo por la propia tendencia del colectivo y por el transcurso de **31 años** desde la creación de Elkarkidetza.

También se ha culminado la implantación del sistema de Buen Gobierno para nuestra Entidad, donde la Junta de Gobierno tiene atribuida la competencia de diseñar, evaluar y revisar con carácter permanente el sistema de gobierno corporativo. Entre otros objetivos se persigue maximizar, de forma sostenida, la solvencia de la Entidad, teniendo en consideración los intereses de las personas asociadas, activos y pensionistas, y velar por el buen proceder, la profesionalidad y la independencia de criterio de los miembros de la Junta de Gobierno y del equipo de gestión, así como por el

Azkenik, berresten dugu garrantzitsua dela pentsio-sistema osagarria existitzea, justizia sozialaren printzipioetan oinarrituz bizi-maila duina ziurtatzeko: pentsio zuzenak, nahikoak eta denboran iraunkorrak. Hasiera-hasietatik, ELKARKIDETZA diseinatzean, aintzat hartu ziren Europa Iparraldeko eredu aurreratuenak. Gure diseinua talde-negoziazioan ardazten da, eta bokazioz lanbide-ibilbide luzeetara hedatu behar zuten ekarpen parekideen sistema baten eta errenta bitartezko prestazioei lehentasuna ematearen alde egin zuen.

cumplimiento de la normativa interna y externa.

Por último, nos ratificamos en la importancia de la existencia de un sistema de pensiones complementario que afiance un nivel de vida digno desde principios de justicia social: pensiones justas, suficientes y sostenibles en el tiempo. ELKARKIDETZA fue diseñada desde un inicio alineándose con los modelos más avanzados, singularmente del Norte de Europa. Nuestro diseño, anclado en la negociación colectiva, apostó por un sistema de aportaciones paritarias que debieran extenderse vocacionalmente a largas carreras profesionales y priorizando de las prestaciones en forma de rentas.



*Karmelo Sainz de la Maza Arrola*

**Presidentea**
Presidente



*Amaia Aldasoro Iturbe*

**Presidenteordea**
Vicepresidenta

# Entitateko Kolektiboa
# Colectivo de la Entidad

## Talde babestua
## Colectivo protegido

**Aktiboen zein pasiboen taldeak areagotu dira. 2017an sartutako aktiboak, 826 alta egon dira, irten direnak baino gehiago izan ziren. Halaber, ordezkaritzetan arreta pertsonalizatua eta komunikazioa sustatu dira eta etendako bazkideak berreskuratzeko ahalegin guztiak egin dituzte 2017an. Horri esker, 194 bazkidek ordainketa berrekitea lortu dute.**

En el año 2017 hay un incremento tanto del colectivo de activos como de pasivos, en la que el número de entradas de activos es superior a las salidas, con 826 altas. Asimismo, las delegaciones, que han fomentado la atención personalizada y la comunicación, han estado volcadas en la recuperación de los socios y de las socias en suspenso a lo largo del año 2017, y han logrado 194 reincorporaciones.

### Taldearen bilakaera
Evolución del colectivo

| | 2017 | 2016 | Hazkundea<br>Incremento |
|---|---|---|---|
| Kolektiboa guztira<br>Colectivo total | 27.562 | 27.111 | 1,66% |
| Aktiboak<br>Activos | 22.060 | 21.959 | 0,46% |
| Pentsiodunak<br>Pensionistas | 5.502 | 5.152 | 6,79% |

**Pentsiodunei dagokienez, % 6,79 igo dira, eta % 20ko pisua dute talde osoaren barnean.**

En lo que respecta a los **Pensionistas**, han aumentado un 6,79%, y su peso respecto al colectivo total es del 20%.




**Aktiboen taldearen batez besteko adina 52 urtekoa da: 51,72 urtekoa emakumeen kasuan, eta 52,29 urtekoa, berriz, gizonen kasuan.**

La edad media del colectivo de activos se sitúa en los 52 años, 51,72 para las mujeres y 52,29 para los hombres.

Urtez urte inkesta bat egiten diogu bazkideen taldeari, ezagutzeko zenbateraino gustura dauden Elkarkidetzak emandako zerbitzuarekin. Gure ustez, “Elkarkidetza gomendatuko zenuke?” galdera da erantzuteko zuzenena eta errazena, erakundea ebaluatzeko orduan.

Año tras año realizamos encuestas al colectivo de socios para conocer cuál es el grado de satisfacción con el servicio que presta Elkarkidetza. La pregunta que consideramos más directa y sencilla de responder para evaluar a la Entidad es: ¿Recomendaría usted Elkarkidetza?

## Elkarkidetza gomendatuko luke
Recomendaría Elkarkidetza




2017ko inkestan, babes-maila % 93,60koa izan zen pentsiodunen taldean eta % 90,24koa, berriz, aktiboen taldean. Azken datu hori inkesta guztietan lortu dugun altuena izan da.

El grado de apoyo obtenido en la encuesta realizada en 2017 es del 93,60% del colectivo pensionista y de un 90,24% del colectivo de activos, habiendo sido este último dato el más alto que hemos recibido en todas las encuestas.

# Ekarpenak / Prestazioak
Aportaciones / Prestaciones




Mila eurotan adierazitako kopuruak.
Cantidades expresadas en miles de euros.

Kuoten bidez, 43 milioi euroko diru-sarrerak lortu ditugu, eta, beraz, % 5,33ko igoera izan dugu aurreko urtearen aldean, baliorik handiena 2012an krisia hasi zenetik, alegia.

El ingreso por cuotas ha ascendido a 43 millones de euros con un incremento del 5,33% % sobre el año anterior, el valor más alto tras la crisis iniciada en 2012.

| PRESTAZIOAK<br>PRESTACIONES | Zenbatekoa<br>Importe | Kop.<br>Núm. |
|---|---|---|
| Nahitaezko erretiroa<br>Jubilación forzosa | 9.064 | 1.569 |
| Borondatezko erretiroa<br>Jubilación voluntaria | 12.646 | 1.608 |
| Ezintasun absolutua<br>Invalidez absoluta | 1.775 | 444 |
| Ezintasun osoa<br>Invalidez total | 3.544 | 869 |
| Aktiboaren alarguntza<br>Viudedad de activo | 1.143 | 316 |
| Aktiboaren zurztasuna<br>Orfandad de activo | 199 | 18 |
| Legezko onuraduna<br>Beneficiario legal | 271 | 3 |
| Pasiboaren alarguntza<br>Viudedad de pasivo | 1.497 | 1.013 |
| Pasiboaren zurztasuna<br>Orfandad de pasivo | 105 | 67 |
| Minusbaliatu umezurtza<br>Minusválido huérfano | 7 | 15 |
| Langabezia<br>Desempleo | 113 | 21 |
| Aurretiko jubilazioa<br>Prejubilación | 1 | 1 |
| Oinordekoen behin-behineko bermea<br>Garantía temporal herederos | 75 | 4 |
| Prestazioak guztira<br>Total prestaciones | **30.440** | **5.948** |

Mila eurotan adierazitako kopuruak.
Cantidades expresadas en miles de euros.

| BESTE ORDAINKETA BATZUK<br>OTROS ABONOS | Zenbatekoa<br>Importe | Kop.<br>Núm. |
|---|---|---|
| Erreskatea<br>Rescate | 1.290 | 51 |
| Diru-itzultzea<br>Reembolso | 19 | 2 |
| Beste ordainketa batzuk guztira<br>Total otros abonos | **1.309** | **53** |

Mila eurotan adierazitako kopuruak.
Cantidades expresadas en miles de euros.

Prestazioen zenbatekoa % 3 igo da, eta 30.440.259 eurotara iritsi. 2017ko ekitaldian, 810 prestazio berri sortu ziren. Horietatik, 526 erretiroarengatik izan ziren, 154 ezintasunarengatik, 100 alarguntasunarengatik, 14 zurztasunarengatik, 7 heriotzarengatik eta 9 langabeziarengatik.

El importe de las prestaciones ha aumentado un 3%, alcanzando la cifra de 30.440.259 euros. El desglose de prestaciones nuevas para el ejercicio 2017 ha sido de 810 personas, de las cuales 526 han sido por jubilación, 154 por incapacidad, 100 por viudedad, 14 por orfandad, siete derivadas de fallecimiento y nueve por desempleo.




# Kudeaketa ekonomikoa
# Gestión económica

Urte askoren ondoren, munduko hazkunde ekonomikoak hazkunde-eredu sinkronizatu bati jarraitu zion lehenbizikoz, eta arlo ekonomiko nagusiek elkarrekin egin zuten aurrera. Egia da hazkundea motela izan dela; baina, momentuz, atzean utzi ditu aurreko urteetako desoreka handiak. Europar Batasuna % 2,5 hazi da, AEB % 2,6, eta Txina % 6,9.

Banku zentralen esku-hartzeak irregulartasunak eragin zituen interes-tasen kurbetan, eta, ondorioz, gobernuaren eta korporazioen bonuen barne-errentagarritasunaren tasa oso baxua izan zen eta errentagarritasun-arriskuaren aldetik aktibo horiek erosteko interesa galdu zen.

2016an bezala, diru-aktiboek pisu handia mantendu dute, epe luzeagora tasa-mailak berriz ere inbertitzeko erakargarriak izango direla espero baita.

Por primera vez en mucho tiempo el crecimiento económico mundial mostró un patrón de crecimiento sincronizado, con todas las principales áreas económicas progresando conjuntamente. Es cierto que el crecimiento es moderado, pero de momento se han dejado atrás los grandes desequilibrios de años anteriores. La UE crece al 2,5%, EEUU al 2,6% y China al 6,9%.

La anómala situación de las curvas de tipos de interés por la actuación de los Bancos Centrales hace que las TIR de los bonos gubernamentales y corporativos sean muy bajas y la compra de estos activos no resulte muy atractiva desde una perspectiva de rentabilidad-riesgo.

Al igual que en 2016 se ha procedido a mantener alto el peso de los activos monetarios a la espera de que los niveles de tipos vuelvan a ser atractivos para invertir a plazos más largos.

Errenta aldakorrari buruz, mundu osoko ikuspegi ekonomikoak hobetu zirela ikusita, zorroak pisu handiagoa hartu zuen. Inbertsioak, ordea, Europan oinarritu ziren bereziki. Izan ere, egoera itxaropentsuagoa zen: ziurgabetasun politikoa ezabatu zen, langabezia-tasak murriztu ziren, barne-kontsumoa hobetu zen eta balorazioak erakargarriagoak ziren.

En renta variable, se aumentó el peso en cartera ante la mejora de las perspectivas económicas a nivel mundial, si bien las inversiones se centraron sobre todo en Europa, donde la eliminación de la incertidumbre política, la reducción de las tasas de paro y la mejora del consumo interno, unidas a unas valoraciones más atractivas presentaban un panorama esperanzador.

## Aktiboaren banaketa
Distribución del activo




Elkarkidetzaren memorian informazio zabalagoa dago.
Hay una información más amplia en la Memoria de Elkarkidetza.

# Euskadiko inbertsioak / Inbertsio zuzenak
Inversiones en Euskadi / Inversiones directas

Ondarearen % 16 Euskadin inbertitu da. Horrela, erakundeak aberastasuna sortu eta gertueneko ingurunea garatu nahi ditu.

Un 16% del patrimonio de Elkarkidetza se encuentra invertido en Euskadi. De esta manera la entidad trata de ayudar a la creación de riqueza y al desarrollo del entorno más cercano.

## Inbertsioa Euskadin
Inversión en Euskadi



Euskadin egindako inbertsio horren partidarik handiena euskal jaulkitzaile publikoen zor-tituluetan dago.

Enpresak bultzatzearen arloan, Elkarkidetzak % 50eko parte-hartzea du ORZA AIEn. Zuzeneko inbertsio-erakundea da, eta euskal enpresa-ehunaren sozietateetan inbertsioak egiteko eratu zen.

Inbertsioa bultzatzeko arloan ere, Elkarkidetzak gutxiengoan hartzen du parte Talde SCR-rekin, kotizatu gabeko enpresen kapitaletan inbertsioak eginez, enpresa horien hazkuntza babestu asmoz.

La partida más grande de inversión en Euskadi se encuentra colocada en títulos de deuda de emisores públicos vascos.

En el ámbito de la promoción empresarial, Elkarkidetza participa en un 50% en ORZA AIE, entidad de inversión directa que fue constituida para la inversión en sociedades del tejido empresarial vasco.

También dentro del ámbito de la promoción de la inversión, Elkarkidetza participa minoritariamente en Talde SCR, centrada en la inversión en el capital de empresas no cotizadas, con una vocación de apoyar el crecimiento de las mismas.

## Inbertsio sozialki arduratsua
## Inversión Socialmente Responsable

Inbertsio-prozesuan, Elkarkidetzak ingurumenarekin, gizartearekin eta erakundearen gobernuarekin lotutako alderdiak kontuan hartzen ditu, finantza-irizpideez gain, errentagarritasun-arriskua binomioari epe luzerako ekarpena egiteko asmoz.

Inbertsio tematikoaren barruan, garapen bidean dauden herrialdeetan mikrokredituetan egindako inbertsioak eta energia garbietan egindako inbertsioak mantentzen dira.

Elkarkidetza tiene en cuenta en su proceso de inversión aspectos o criterios medioambientales, sociales y de gobierno corporativo además de los criterios financieros, con un objetivo de contribución a largo plazo al binomio rentabilidad-riesgo.

Dentro del apartado de inversión temática se mantienen inversiones en microcréditos en países en vías de desarrollo e inversiones en energías limpias.

## Errentagarritasuna
## Rentabilidad

| Urteak | Años | 15 | 10 | 5 | 3 | 1 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Sistema indibiduala | Sistema individual | 2,85% | 1,83% | 4,18% | 1,88% | 2,56% |
| Enplegu-sistema | Sistema de empleo | 3,88% | 3,14% | 4,78% | 2,96% | 3,19% |
| Atxikitako sistema | Sistema asociado | 4,44% | 2,95% | 4,98% | 2,70% | 2,99% |
| Planak guztira | Total planes | 3,27% | 2,33% | 4,39% | 2,25% | 2,77% |
| Elkarkidetza | | **5,27%** | **4,00%** | **5,53%** | **4,42%** | **5,13%** |
| KPI | IPC | 1,92% | 1,24% | 0,40% | 0,90% | 1,60% |

INVERCO Talde-inbertsioen eta Pentsio-funtsen Erakundeen Elkartea da. Ez dago BGAEen antzeko estatistikarik.
INVERCO es la Asociación de Instituciones de Inversión Colectiva y Fondos de Pensiones. No existe una estadística similar respecto a las EPSV.

Iraganeko errentagarritasunek ez dute bermatzen eta ez dute zehazten etorkizuneko errentagarritasunik.
Rentabilidades pasadas no garantizan ni determinan rentabilidades futuras.

2017an, Elkarkidetzak % 5,13ko errentagarritasuna lortu zuen. Beraz, lortutako errentagarritasunak nabarmen gainditu du pentsio-planek 2017an batez beste lortutakoa (% 2,77).

Balio-igoera horri esker, azken 15 urteotan lortutako errentagarritasun urtekotua % 5,27koa da, eta, hortaz, aise gainditzen du enplegu-funtsek lortutako batez bestekoa, baita epealdi horretako inflazioa ere.

Errentagarritasunari ekarpen handiena egin dioten alderdien artean, aipatzekoak dira errenta aldakorra (% 10,2ko errentagarritasuna lortu baita eta zorroaren errentagarritasun osoari % 2,8ko ekarpena egin baitio) eta errenta finkoa (horretan % 3,4ko errentagarritasuna lortu baita eta zorroaren errentagarritasun osoari % 1,5eko ekarpena egin baitio). Egituratuetako inbertsioak % 10,0eko errentagarritasuna lortu du eta % 0,3ko ekarpena egin du, eta partaidetuetan/kapital arriskuan egindako inbertsioak, berriz, % 4,0ko errentagarritasuna lortu du eta % 0,2ko ekarpena egin dio zorroaren guztizko errentagarritasunari.

La rentabilidad acumulada en el año ha sido 5,13% que ha batido con creces la media de los planes de pensiones en 2017 que se ha situado en el 2,77%.

Con esta revalorización, la rentabilidad anualizada lograda en los últimos 15 años se sitúa en el 5,27%, muy por encima de la media lograda por los fondos de empleo y superando también de forma holgada la inflación en dicho periodo.

Los mayores contribuidores a la rentabilidad han sido la renta variable sobre la que se ha obtenido un 10,2% de rentabilidad y que ha aportado 2,8% a la rentabilidad total de la cartera, y la renta fija sobre la que se ha obtenido una rentabilidad del 3,4% y que ha aportado 1,5% a la rentabilidad total de la cartera. La inversión en estructurados ha obtenido una rentabilidad del 10,0% y ha contribuido con un 0,3% y la inversión en participadas/capital riesgo ha obtenido un 4,0% de rentabilidad y ha aportado 0,2% a la rentabilidad total de la cartera.

## Egoera finantzarioak eta kaudimena
## Estados Financieros y Solvencia

Elkarkidetzak ezarrita daukan kaudimen-mailak ahalbidetzen du pentsioen konpromisoak bizi-itxaropena luzatzeko aukerara egokitzea, interes-tasa teknikoak aldatzea, edo errentagarritasun negatiboko urteak konpentsatzea. Kaudimen maila % 14,67an kokatu da, eskatzen den legezko gutxiengoaren % 10,67 gainetik.

Osagarri moduan eta bi urteko zuzkidura egin ondoren, aktiboen kolektiborako segurtasun-marjina, % 0,075an kokatu da, eskatzen den legezko gutxiengoaren % 0,050 gainetik.

Aurten, irabazietan parte-hartzeari esker, Prestazioen Erregelamenduan jasotako eran, pentsiodun taldearen pentsioek hobekuntza izango dute.

Elkarkidetza tiene establecido un nivel de solvencia que ha permitido y permitirá la adaptación de los compromisos por pensiones a posibles incrementos en la esperanza de vida, a cambios en tipos de interés técnico o a compensar años de rentabilidades negativas. El nivel de solvencia se sitúa en un 14,67%, un 10,67% superior sobre el mínimo legal exigido.

Adicionalmente y tras dos años de dotación, el margen de seguridad del colectivo de activos se sitúa en un 0,075%, un 0,050% superior sobre el mínimo legal exigido.

La participación en beneficios este año permitirá mejorar las pensiones al colectivo de pensionistas en función de lo recogido en el Reglamento de Prestaciones.

# Beste jarduera-ildo batzuk
# Otras líneas de actuación

Jarduera batzuk azpimarratuko ditugu:

- Eusko Jaurlaritzaren aurrean aurkeztutako Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, “Elkarkidetza BGAEk 2016ko ekitaldirako hornidura matematikoak kalkulatzeko aplika dezakeen interes-tasa teknikoari” buruzkoa. Bi aldeek adostu zuten errekurtsoa bertan behera uzteko eskatzea. Eztabaidari amaiera eman zitzaion.

- Gobernu Batzordeak **korporazioaren gobernu-sistema** etengabe diseinatu, ebaluatu eta berrikusi behar du, eta, zehazki, arriskuak kudeatzeko eta barne-auditoriako funtzioei eta, hala dagokionean, funtzio aktuarialari eta kanpora ateratakoei buruzko politika idatziak egingo ditu. Halaber, Gobernu Batzordearen ardura izango da politika horiek ezartzea eta urtero berrikusi eta egokitu egingo dira, erakundearen sisteman edo arlo bakoitzean aldaketa garrantzitsuren bat gertatzen denean.

  Elkarkidetzaren Gobernamendu Ona onartu izanaren lehenengo ondorioa **Kanal etikoa** sortzea izan da. Kanal hori Elkarkidetzaren web orrian dago eta horren bidez, pertsona fisikoek eta juridikoek gertakarien berri eman ahal diote erakundeari, delitu edo irregulartasun bat egin dela edo egiteko arriskua dagoela dakitenean.

- **Arriskuen kudeaketarako** sistema baten ezarpenari hasiera eman zaio. Arriskuak modu arrazoituan, koherentean eta sistematikoan identifikatu, ebaluatu, aztertu, kontrolatu eta jakinarazten direla ziurtatu nahi da.

- Amaitzeko azpimarratu nahi dugu, aurten **ISO 9001:2015** ziurtagiria berriro lortu dugula, inolako ez-betetzerik gabe, horrela gure kudeaketa eredua finkatuz.

Tenemos que destacar los siguientes aspectos:

- Recurso Contencioso Administrativo ante el Gobierno Vasco, sobre “Tipo de interés técnico aplicable por Elkarkidetza EPSV al cálculo de las provisiones matemáticas para el ejercicio 2016”. Se decidió por mutuo acuerdo solicitar la suspensión del recurso. La controversia ha sido finalmente superada.

- La Junta de Gobierno tiene atribuida la competencia de diseñar, evaluar y revisar con carácter permanente el **sistema de gobierno corporativo** y, específicamente, adoptará políticas escritas en relación con las funciones de gestión de riesgos, auditoría interna, y, en su caso, con la función actuarial y de externalización. Asimismo, será su responsabilidad la implementación de dichas políticas, que serán revisadas anualmente adaptándolas a la vista de cualquier cambio significativo en el sistema de la Entidad.

  El primer efecto de la aprobación del Buen Gobierno de Elkarkidetza ha sido la creación del **Canal ético**, disponible en la Web de Elkarkidetza, donde las personas físicas y jurídicas pueden informar a la Entidad de los hechos de los que tengan conocimiento que constituyan o puedan constituir un riesgo de comisión de delitos o una Irregularidad.

- Se ha iniciado la implementación de la **gestión de sus riesgos** y mejorar la administración de éstos. Se busca asegurar razonablemente, en forma, consistente y sistemática, que los riesgos sean identificados, evaluados, analizados, monitorizados y comunicados.

- El ultimo hito que queremos destacar es la consecución de la recertificación **ISO 9001:2015**, que se ha obtenido con cero no conformidades, que consolida nuestro modelo de gestión.

# Urteko kontuak
## Cuentas anuales

| AKTIBOA | ACTIVO | 2017 |
|---|---|---|
| **Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk** | Efectivo y otros activos líquidos equivalentes | 66.920 |
| **Negoziatzeko eutsi diren finantza aktiboak** | Activos financieros mantenidos para negociar | 334.171 |
| **Galeretan eta irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioa duten beste finantza aktibo batzuk**<br>Otros activos financieros a valor razonable con cambios en pérdidas y ganancias | | 413.193 |
| **Maileguak eta kobratu beharreko partida** | Prestamos y partida a cobrar | 44.135 |
| **Mugaegunera arte eutsitako inbertsioak** | Inversiones mantenidas hasta el vencimiento | 185.074 |
| **Ibilgetu materiala eta inbertsioak higiezinetan** | Inmovilizado material e inversiones inmobiliarias | 9.330 |
| **Ibilgetu ukiezina** | Inmovilizado intangible | 1 |
| **Partaidetzak elkarteko erakundeetan eta kideetan** | Participaciones en entidades del grupo y asociadas | 51.016 |
| **Guztira aktiboa** | Total activo | 1.103.840 |

| PASIBOA ETA ONDARE GARBIA | PASIVO Y PATRIMONIO NETO | 2017 |
|---|---|---|
| **Pasiboa** | Pasivo | |
| **Negoziatzeko eutsi diren finantza pasiboak** | Pasivos financieros mantenidos para negociar | 0 |
| **Debituak eta ordaindu beharreko partidak** | Débitos y partidas a pagar | 527 |
| **Zuzkidura teknikoak** | Provisiones técnicas | 1.063.052 |
| **Pasiboa guztira** | Total pasivo | 1.063.579 |
| **Ondare garbia** | Patrimonio neto | |
| **Funts propioak** | Fondos propios | 18.677 |
| **Ekitaldiaren emaitza** | Resultado del ejercicio | 21.584 |
| **Ondare garbia guztira** | Total patrimonio neto | 40.261 |
| **Pasiboa eta Ondare Garbia Guztira** | Total pasivo y patrimonio neto | 1.103.840 |

Mila eurotan adierazitako kopuruak
Cantidades expresadas en miles de euros

| EMAITZEN KONTUA | CUENTA DE RESULTADOS | 2017 |
|---|---|---|
| Ekitaldiari inputaturiko kuotak, berraseguruko garbiak | Cuotas Imputadas al Ejercicio, Netas de Reaseguro | 43.235 |
| Ibilgetu materialaren eta inbertsioen sarrerak | Ingresos del inmovilizado material y de las inversiones | 68.985 |
| Beste sarrera tekniko batzuk | Otros ingresos técnicos | 180 |
| Ekitaldiko prestazioak, Berraseguruko garbiak | Prestaciones del ejercicio, Neta de Reaseguro | -31.836 |
| Berraseguruko Beste Zuzkidura Tekniko Garbien aldaketa | Variación de Otras Provisiones Técnicas Netas de Reaseguro | -9.359 |
| Ustiapen gastu garbiak | Gastos de Explotación Netos | -2.728 |
| Ibilgetu materialaren eta inbertsioen gastuak | Gastos del inmovilizado material y de las inversiones | -12.795 |
| Aparteko gastuak | Gastos excepcionales | -1.077 |
| Ustiapen emaitzak, %5,13ko errentagarritasuna | Resultados de explotación, Rentabilidad 5,13% | 54.605 |

| | | |
|---|---|---|
| Zuzkidura aktuarialerako ekitaldiko hornidura | Dotación ejercicio provisión actuarial | 5.908 |
| Zehaztutako ekarpen zuzkidurako ekitaldiko hornidura | Dotación ejercicio provisión aportación definida | -38.929 |
| Ekitaldiaren emaitza | Resultado del ejercicio | 21.584 |

| ESTALDURA TASA, EKITALDIKO EMAITZA BANAKETAREN ONDOREN<br>TASA DE COBERTURA DESPUÉS DE LA DISTRIBUCIÓN DEL RESULTADO DEL EJERCICIO | | 2017 |
|---|---|---|
| Mutuako funtsa | Fondo mutual | 9.015 |
| Erreserbak eta beste hornidura tekniko batzuk | Reservas y otras provisiones técnicas | 29.627 |
| Aktiboen segurtasun marjina | Margen de seguridad de activos | 603 |
| Guztira | Total | 39.245 |
| Pasiboen hornidura teknikoak | Provisiones técnicas de pasivos | 263.347 |
| Estaldura | Cobertura | 14,67% |
| Eskatzen den legezko gutxiengoaren gainekoa | Exceso sobre el mínimo legal exigido | 10,67% |
| Aktiboen hornidura teknikoak | Provisiones técnicas de activos | 800.743 |
| Aktiboen estaldura | Cobertura de activos | 0,075% |
| Eskatzen den legezko gutxiengoaren gainekoa | Exceso sobre el mínimo legal exigido | 0,050% |

# Kontu-ikuskaritza
## Informe de auditoría


Informe de auditoría de cuentas anuales emitido por un auditor independiente

A la Asamblea General de Elkarkidetza, E.P.S.V. de Empleo:

Opinión

Fundamento de la opinión

Aspectos más relevantes de la auditoría

En nuestra opinión, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Sociedad a 31 de diciembre de 2017, así como de sus resultados y flujos de efectivo correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la Nota 2.1 de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.


Elkarkidetza, E.P.S.V. de Empleo

Modo en el que se han tratado en la auditoría

Elkarkidetza, E.P.S.V. de Empleo

Elkarkidetza, E.P.S.V. de Empleo

# 2018ko Kudeaketa Plana
# Plan de gestión 2018

2018rako aurreikusitako ekintza-planen artean, jarraian aipatzen ditugunak azpimarratuko genituzke:

- Arriskuen prebentzio eta kudeaketarako eta compliance penalerako politikaren azken diseinua onartzea eta ezartzea.
- Erakundearen aktiboaren eta pasiboaren prospektiba hamar urtera: azterketa eta erabakiak hartzea.
- Bazkideekin erlazionatzeko sistema integrala lortzeko aurrerapausoak ematea, gizartearen eta ekonomia digitalaren eskaeretara egokituta.
- Instituzioen eta sindikatuen inplikazioa.
- Pertsonen kudeaketari dagokionez:
    - Kontingentzia-plana eta pertsonak ordeztea.
    - Lidergoaren kudeaketa sustatzea eta barneko komunikazio-plana ezartzea.
    - Berrikuntza eta sormena sustatzea eta kudeatzea.

Dentro de los planes de acción previstos para el ejercicio 2018, destacaríamos:

- Diseño final, aprobación e implantación de la política de prevención y gestión de riesgos y del Compliance penal.
- Prospectiva del activo y del pasivo de la Entidad a diez años: análisis y toma de decisiones.
- Nuevos pasos hacia un sistema integral de relación con las personas asociadas adaptado a los requerimientos de la sociedad y economía digital.
- Implicación de instituciones y sindicatos.
- En la gestión de las personas:
    - Plan de contingencia y sustitución.
    - Potenciar la gestión del Liderazgo e implantar plan de comunicación interna.
    - Fomentar y gestionar la innovación y la creatividad.

## Inbertsioen politika
## Política de inversiones

Bloke ekonomiko nagusien suspertze ekonomiko globalak eta koordinatuak 2018an jarrai dezake. Suspertzea aurrekoak baino motelagoa izaten ari da hazkuntzari dagokionez, baina baita luzeagoa eta apurkakoagoa ere.

2018rako erronka nagusia izango da banku zentralen diru-politiketan nolabaiteko normalizazioa lortzea. Aurreikusten da AEBk 3 aldiz igoko dituela tasak, eta urteko bigarren zatian, Europako Banku Zentralak aktiboen erosketa-programa beste behin luzatu edo 2019rako bertan behera utziko duen erabaki beharko du. Urteko bigarren zatian, merkatuak hegakorragoak izan litezke.

Errenta aldakorrari dagokionez, zenbait merkatuk biderkatzaile altuak dituzte prezio/mozkin ratioetan, eta horiek interes-tasa txikien ondorio dira. Inflazioaren eta tasen igoerak bat-batekoak eta handiak ez diren bitartean, enpresetako emaitza-kontuen hobetzeak biderkatzaileak mantentzeko eta burtsetan aurrerapenak egoteko aukera emango du.

Gobernuaren errenta finkoari dagokionez, Europan errentagarritasun-maila baxuak daude, eta EBZk

La recuperación económica global y coordinada de los principales bloques económicos podría continuar en 2018. Comparada con anteriores recuperaciones, la que estamos viviendo está siendo moderada en cuanto a crecimiento, pero también más larga en duración y más gradual que las anteriores.

El gran tema de 2018 será la vuelta a cierto grado de normalización de las políticas monetarias de los Bancos Centrales. EEUU se espera que suba tipos en 3 ocasiones, mientras que el Banco Central Europeo tendrá una cita en la segunda parte del año para decidir si prorroga una vez más el programa de compra de activos o lo elimina de cara a 2019. La segunda parte del año puede traer algo más de volatilidad a los mercados.

En la renta variable los altos multiplicadores en forma de ratio precio/beneficios que muestran algunos mercados son un reflejo de los bajos niveles de tipos de interés. Mientras las subidas de inflación y tipos no sean bruscas e intensas, las mejoras de las cuentas de resultados de las empresas permitirán mantener los multiplicadores y dejar espacio para avances en las Bolsas.

diru-politikaren nolabaiteko normalizazioari ekingo dio. Ondorioz, mota horretako aktiboetan epe luzera inbertitzea ez da oso erakargarria. Ziurrenik, Alemaniako bonuek 10 urtera ematen duten etekina igo egingo da 2018an. Egoera ikusita, zentzuzkoa litzateke zorroan luze irautea saihestea.

Espero da ondareak % 3,1 inguruko errentagarritasuna izatea batez beste.

En renta fija gubernamental, los bajos niveles de rentabilidad en Europa y el eventual inicio de una cierta normalización de la política monetaria del BCE hacen que la inversión en los plazos largos de esta clase de activos no parezca muy atractiva. Es probable que el rendimiento de los bonos a 10 años alemanes suba en 2018. Con este entorno, parece razonable evitar las duraciones largas en cartera.

La rentabilidad media esperada se sitúa en un 3,1%.

## Administrazio-gastuak
Gastos de administración

2018rako, ez dute Prestazioen Erregelamenduan 14. artikuluan ezarritako muga gaindituko (% 0,32 administrazio-gastuetan eta % 0,33 inbertsio kolektiboko instituzioetako edo arrisku-kapitaleko erakundeetako inbertsioetan komisio inplizituetan).

Para el año 2018 no superarán el límite máximo establecido en el artículo 14 del Reglamento de prestaciones (gastos de administración 0,32% y comisiones implícitas en inversión en IIC o ECR 0,33%).

## Ekarpenak
Aportaciones

Erakundearen erregelamendua aplikatuz, ekarpenak eguneratu egin dira 2018rako:

En aplicación del reglamento de la Entidad se ha procedido a actualizar las aportaciones para el año 2018:

| TALDEA<br>GRUPO | OINARRIAK<br>BASES | %6<br>6% | %7<br>7% |
|---|---|---|---|
| A1 | 49.569,33 | 106,22 | 123,92 |
| A2 | 40.478,67 | 86,74 | 101,20 |
| C1 | 33.203,33 | 71,15 | 83,01 |
| C2 | 27.757,33 | 59,48 | 69,39 |

Eurotan.
En euros.

Urtean 14 kuota ordaintzen dira (12 hilerokoak eta ekaineko eta abenduko gehigarriak). Ordainketak, nominan egindako atxikipenen bitartez egiten dira. Ekarpenen % 90 erretirorako aurrezkia eratzeko izaten da eta gainerako % 10 jardunean sortutako ezintasun eta heriotzak gertatuz gero, kapital gehigarria eratzeko.

Halaber, 103,00 eurotan ezarri da 2018rako hileko gutxieneko pentsioa gure Erregelamenduan.

Anualmente se abonan 14 cuotas (las 12 mensualidades y las adicionales de junio y diciembre). Éstas se realizan a través de la retención en nómina. De estas cantidades, el 90% se destina al ahorro para la Jubilación y el 10% para generar el capital adicional para los casos de Incapacidad y Fallecimiento en activo.

Asimismo para el año 2018 el importe mínimo de pensión establecido en nuestro reglamento, es de 103 euros.

# Batzar Nagusiak harturiko akordioak
# Acuerdos adoptados por la Asamblea General

Apirilaren 19an, Gasteizko Artium museoan, Ohiko Batzar Nagusiaren bilkura egin zen eta gehiengoaren aldeko botoarekin akordio hauek hartu ziren:

1. Gobernu Batzordeko kideen artean ordezkatutakoen kargu-uzteak eta izendapenak.

2. Gobernu Batzordearen kudeaketa, Urteko kontuak, Kudeaketa txostena eta 2017ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiaren emaitza banaketa onartzea.

3. 2018rako kudeaketa plana eta aurrekontua onartzea.

4. Prestazioen Erregelamenduko 31. artikuluaren aldaketaz berri ematea. Iraupen luzeko langabezia.

5. 2018ko ekitaldirako kontu-auditoreak izendatzea.

El pasado 19 de abril se celebró en el Museo Artium de Vitoria-Gasteiz la Asamblea General ordinaria, donde se tomaron por mayoría los siguientes acuerdos:

1. Cese y nombramiento de los vocales sustituidos en la Junta de Gobierno.

2. Aprobación de la gestión de la Junta de Gobierno, las Cuentas Anuales, el Informe de Gestión y la propuesta de distribución del resultado del ejercicio cerrado a 31 de diciembre de 2017.

3. Aprobación del Plan de Gestión y del presupuesto para el ejercicio 2018.

4. Información de la modificación del artículo 31 del Reglamento de Prestaciones Desempleo de larga duración.

5. Designación de los auditores de cuentas de la Entidad para el ejercicio 2018.

# ELKARKIDETZA EREDU AURRERATU ETA ARRAKASTATSUEKIN LERROKATUA DAGO

## Gizarte aurreikuspen osagarria beharrezkoa eta ezinbestekoa da zure eta zure familiaren etorkizunerako

### Borondatezko ekarpenak

***Zergatik egin behar dira borondatezko ekarpenak?***
Erretiro garaian bizitza maila duina mantendu nahi bada eta jasoko diren diru-sarrerak ez direla nahikoak izango uste bada, aurrezteko ordua da. Bazkideek borondatezko ekarpenak egitea eska dezakete.

***Noiz hasi behar da borondatezko ekarpenak egiten?***
Aurrezteko modurik erosoena, hileroko ekarpenak egitea da, azken orduko ahaleginak egin behar izatea ekidingo baita. Garbi dago, etorkizunerako aurreztu nahi izanez gero, egokiena lehenbailehen hastea dela. Zenbat eta gehiago itxaron, orduan eta hileroko ahalegin handiagoa egin behar dugu erretirorako aurrezki helburua lortzeko.

***Zer egin behar da?***
Lurralde bakoitzeko bulegoan bete behar da eskaera inprimakia.

# ELKARKIDETZA ESTÁ ALINEADA CON LOS MODELOS AVANZADOS Y DE ÉXITO

## La previsión social complementaria es necesaria e imprescindible para tu futuro y el de tu familia

### Aportaciones voluntarias

***¿Por qué plantearse realizar aportaciones voluntarias?***
Si se quiere mantener un nivel de vida digno al alcanzar la jubilación y se considera que los ingresos que se obtendrán no serán suficientes, es el momento de ahorrar. Existe la posibilidad de que los socios y las socias puedan solicitar una aportación voluntaria.

***¿Cuándo empezar a realizar aportaciones voluntarias?***
La forma más cómoda de ahorrar son las aportaciones periódicas, ya que no se necesita realizar esfuerzos de última hora. Está claro que lo ideal es empezar a ahorrar cuanto antes para el futuro. Cuanto más tarde, más esfuerzo se tendrá que realizar cada mes para alcanzar el objetivo de ahorro al jubilarse.

***¿Qué hay que hacer?***
Se debe cumplimentar el impreso en nuestras delegaciones.



elkarkidetza®
pentsioak

ISO 9001
BUREAU VERITAS
Certification

KUDEAKETA AURRERATUARI
ZILARREZKO AINTZATESPENA

RECONOCIMIENTO DE PLATA
A LA GESTIÓN AVANZADA


**www.elkarkidetza.eus**

Fax: 94 479 10 22

**ARABA/ÁLAVA**
Ramón y Cajal, 7-9
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 14 11 41

**BIZKAIA**
Gardoqui, 2
48008 Bilbao
Tel.: 94 415 55 78

**GIPUZKOA**
Mendeurren Plaza, 6
20006 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 43 02 56